

HCRE 2024-2028



Aurkibidea

SARRERA	3
IRIZPIDEAK	4
XEDEA, IKUSPEGIA ETA BALIOAK	5
KIROL ORGANIGRAMA	6

SARRERA

Txosten honetan HERNANI CLUB RUGBY ELKARTEKO **proiektu berria** aurkeztuko da.

Eguneratutako proiektu hau aurrekoetatik bereiziko da hein handi batetan, eta aurrera egiteko eta gaur egungo lehiaketa baldintzetara egokitzeko aurrerapausoak emateko bidea markatuko du.

Proiektu hau 2-4 urteren barruan gauzatzeko erronka hartuko da, hau da gehienez 2026 edo 2028.ean hein handi batean behintzat, gauzatuta egon beharko du, eta **HCREko Batzarrak onartuz gero 2024-2025 denboraldirako emango ditu lehen pausuak.**

IRIZPIDEAK

Helburu nagusia datozen lau urteetan klubaren egitura berrantolatu eta sendotzea izango da, etorkizunean etorriko diren erronka guztiei aurre egiteko prest egon gaitzen.

Aurrera egiteko garaia dela ulertzen dugu, baina klubak bere historian zehar izan duen izaera berezi horri, beste klubetatik nabarmendu gaituen nortasun horri, edo eta momentu zailenetan bultzatu gaituen marka propio horri helduz eta bermatuz, hau da, estatuko harrobirik garrantzitsuenetakoa garela guztiz bermatzea.

Kirol egitura hau sendotzeaz ari garenean, klubera hurbiltzen den pertsona orori esparru abegikorra eskaintzeaz ari gara, non bertan disfrutatu eta geldituko diren. Ez dugu klubeko ateak irekitzera soilik mugatu nahi, klubaren egituran murgiltzea baizik: taldeetan, entrenatzaileen artean, zuzendaritzan, gizarte lanetan ... Beti ere zuzendaritza Batzordeak markatutako ildoak jarraituz.

Honek, gure nortasunean hain garrantzitsua den auzolana indartuko du.

Nabarmentzen den moduan zuzendaritza honen ardatz nagusi bat gizarte arloa da. Oso argi dugu, eta oso argi utzi nahi dugu gure xedea ez dela errugbira jokatzeko soilik, errugbia praktikatzen duten PERTSONAK hezteko eta haien bizi kalitateari ekarpena egitea baizik. Honegatik ere 2021eko azaroaren 9.ean Eusko Jaurlaritzak onura publikoko erakunde bezala izendatu gintuen.

“Berritu hala hil” leloari so eginez kirol proiektuaren erroak, 2014ean osatutako “HCRE FORMAZIO PLANA; JOKALARIEN GARAPENA EPE LUZERA LEHEN TALDERAKO BIDEA” txostenaren oinarrietatik abiatuta, egungo egoerara heldu gara, non **HCREko talde guztiak beren mailako ELITEKO txapelketetan lehiatzen ari dira, egungo gure harrobiaren indarra baieztatuz berriz ere.**

Helburu honekin gure lanaren ardatz izango diren zenbait jarraibide azpimarratuko ditugu:

XEDEA, IKUSPEGIA ETA BALIOAK

XEDEA

Errugbiaren bidez, pertsonen arteko elkarbizitzarako ezinbestekotzat jotzen ditugun printzipio eta gizarte balioak sustatu eta garatzea, Hernaniko eta inguruko biztanleen “bizigarritasuna” hobetze aldera, komunitate anitza sortuz eta kooperazio eta talde laneko espazio baterako, eta oro har klubaren proiektura, sarbidea emanaz.

IKUSPEGIA

HCRE elkarte irisgarria eta hurbila da, herriarekin erabat identifikatzen dena eta **estatu mailan erreferentea** bere harrobiagatik, talde lanagatik, formazioagatik eta jokalaria, entrenatzaileak eta zaleak klubean integratzeagatik. Helburu hori lortzeko klubeko kideok elkarrekin lan egiten dugu, klubaren kultura eraldatu eta inguruneak eskatzen duen gizarte aldaketei egokitzeko. Partaide guztientzat kirol zuzendaritza eta kudeaketa zuzena egitera bideratua, hauen generoa eta maila edozein dela ere. Klubak, bere osotasunean, klubeko maila ezberdinetako partaideak bere hartuko ditu, generoa, gaitasuna, jatorria edo egoera soziala aintzakotzat hartu gabe.

Hala, klubaren oinarritzko kultura etengabe eta modu dinamikoan agertoki segurua eta erakargarria eskainiko duena izan dadin, kide guztiok modu aktiboan parte har dezagun motibazio, ardura eta konpromiso handiagoarekin egokitzen zaigun rolaz jabetuz.

BALIOAK

Umiltasuna eta Errespetua: Pertsonak izateko oinarria baita.

Zintzotasuna: koherentzia, errespetua, zintzotasuna. Sinesgarritasuna edukitzeko oinarria baita.

Lankidetzaz: talde lana eta gizarte erantzukizuna sustatuz formatzen baikara.

Inklusioa: aniztasuna onartzen dugu eta osotasunaren zati egiten dugu.

Solidaritatea: bakarkako zein taldeko gure ekintzak hobetzeko izpiritua, taldekideei lagunduz.

Jendarte konpromezua: komunitatean interesa bilatuz, atxikimendu irekiak edukiaz, bolondres eta erantzun sozialaz arduratuta.

Berdintasuna: Guztiok gara berdinak HCREn

Euskara: Gure hizkuntzarekiko engaiamendua nabarmentzen

Lehiaketari dagokionez, **klubak azken urte hauetan jorratu duen bideari “plus” bat eman nahi diogu**, gure izaera propioari jarraituz ahalik eta maila goreneko jokalaria sortuz.

Hau aurrera eramateko, **gure lehentasuna senior mailara iristen diren neska mutikoen kopurua eta goreneko maila teknikoa bermatzea izango da.**

Bide honetan Hernaniko Errugbi Eskola (errugbiaren hastapena) eta Errugbi Akademia (errugbiaren garapena) sendotu eta ohorezko mailako jokalaria garatzeko pausuak eta ahaleginak egingo ditugu, bai gizonezko zein emakumezkoen taldeetan, maila lortzen dutenak, eta existituko bada GIPUZKOAKO TALDE BATERATU batetara bideratuz, eta maila horretara iristen ez direnak edo iritsi nahi ez dutenak eskualdeko edo “erregional mailan” jokatzeko Hernaniko Errugbi Sozialeko taldea osatuz.

Eta Gipuzkoako talde bateraturik ez balego, gure jokalarien maila eta ahalbide ekonomikoak bideratuko gaituen mailara.

Hauek izango dira gure egitura sendotzeko jarritako helburuak:

RUGBY ESKOLA; Errugbiaren hastapena

- Jokalari kopurua handitzen jarraitu (neska-mutilak).
- Ekintza gehiago antolatu (Landaren, kalean, txapelketak, txangoak, Udalekuak...)
- Kalitatezko entrenamenduak eta ekintzak eskaini.

RUGBY AKADEMIA; Errugbiaren garapena eta errendimenduaren hastapena:

- Seniorretara igoko diren jokalarien maila handitu.
- Jokalarien parte hartzea sustatu.
- Jokalarien osasuna eta kirolean ongi izatea zaindu.
- Pertsonak formatu

SENIOR MAILA; Errendimendu taldeak:

- Jokalari guztiei errugbia praktikatzeko aukera anitzak sortu eta eskaini.
- Jokalarien parte hartzea bultzatu, klubeko egitura osoan.
- GIPUZKOAKO eliteko jokalari hornitzaile nagusiak izan

Entrenatzaileak:

- Entrenatzaileen formazioa bultzatu.
- Entrenatzaile guztien arteko lan amankomuna bideratu
- Entrenatzaileen kaptazioa landu.
- Euskarak izan behar du komunikazio hizkuntza nagusia.

ERRUGBI SOZIALA:

- Inklusibo taldearen iraupena landu, bertako jokalariez gain, beste taldeetakoek ere parte har dezaten sustatuz, klubeko gune bateratua baita 14 urtetik gora.
- “Gipuzkoako Espetxean Errugbia Garatzeko egitasmoa” finkatu eta EAeko beste espetxeetakoekin elkarlana sustatu.
- Beteranoen taldea sustatu.
- Errugbi sozialaren ikuspegia zaindu: jokalarien ongizate fisiko eta hobekuntza teknikoa, jokorako osagai gisa, eta horrekin batera jokalarion eta beren inguruko (familia, lagunak) ongizate emozionala eta soziala.

BESTE KLUBEN ARTEKO LANKIDETZA

Gipuzkoarako planteatzen ari den Talde Bateratuko eragile nagusiak bihurtu, horretarako behar diren azpiegiturak osatuz eta talde eragilean aktiboki parte hartuz

KIROL ORGANIGRAMA

Organigrama teknikoa aparteko txosten batean irudikatu eta zehaztuko da.

Kirol arduradun berriak markatuko ditu ildoak

EGITURA SOZIALA

- Klubaren inguruan biltzen den jendarte edo "masaren" kudeaketa. Gurasoen mundua batez ere. Kluba etxea bihurtu
- Herri ekimenean parte hartu
- Beharrezkoak izango diren azpiegituren azterketa
- Komunikabideetan eragina

KLUBEKO ORGANIGRAMA ETA LAN TALDE BURUEN OSAKETA:

BATZORDEEN BETEBEHARRAK:

ZUZENDARITZA BATZORDEA: Asanbladan erabakitakoaren betetzearen bermea eta Clubaren kudeaketa iraunkorra

LEHENDAKARITZA: Clubaren zuzendaritza orokorra eta Instituzio, elkarte eta beste Cluben arteko harremanak.

KIROL IDAZKARITZA: Kirol arloko dokumentazioaren kudeaketa

KLUBEKO BAZKIDEN KUDEAKETA Bazkide Batzarkideen kudeaketa. ABONATUEN kudeaketa eta IDAZKARITZArekin harremana.

DIRUZAINITZA: Klubaren ekonomiaren kudeaketa. Gestoriarekin harreman zuzena eta Batzorde Komertziala eta Lehendakaritzarekin ere

GIZARTE GAIK: HCREk talde barneratzaile edo inklusiboa izaten jarraitzeko jorratu behar diren eta mantendu behar diren bideen kudeaketa eta beste proiektu eta gizarte eragileen arteko harremanen ardura

PRENTSA BATZORDEA: Prentsa Batzordeko kudeatzailea, web orriaren kudeaketa eta prentsa idatzia zein entzun ikusizkoarekin harremanak. Streaming-eko emanaldien kudeaketa

KIROL ZUZENDARITZA: Kirol saileko organigraman adierazitakoa. Zehazki KIROL ZUZENDARITZA eta KLUBEKO ZUZENDARITZAREN arteko komunikazioa eta Kirol Idazkaritza lanak.

EKE/MUS BATZORDEA: Klubeko lehendakaritza + Lantalde edo komisiio propioa bi urtez txandakakoa, baina Zuzendaritza Batzordearen menpe dagoena. Elkarte gastronomikoa eta Kantinearen kudeaketa. Dokumentazioaren kudeaketa EKE/MUS BATZORDEA,

GARAGARDO AZOKA BATZORDEA: Garagardo azokako antolaketa

DENDA ETA EKIPAIK: Mertzandaisina eta ekipaien kudeaketa. Batzorde Finantzieroarekin adostuz.

I+D+I-AZPIEGITURAK: Kirol azpiegituraren mantenimendua eta berrikuntzak.

EUSKARA BATZORDEA: Klubeko Euskararen normalizaziorako kudeaketa

BERDINTASUN BATZORDEA: Klubeko berdintasunerako bidearen kudeaketa

ERASOEN AURKAKO BATZORDEA: Klubeko jazarpenaren aurkako protokoloaren kudeaketa

